

# Maria Josefa Goikoetxea Iturralde

Astigarraga, 1922-1978

*Baserritarra eta sagardogilea. Emakume langilea izan zen: kupeletako sagardoa saldu, baserriko zein etxeko lanak egin eta barazkiak saldu zituen Bretxako merkatuan. Beranduago, jatetxeko sukaldean lan egin zuen. Gainera, Gipuzkoan gidabaimena atera zuen lehen emakumea izan zen.*

**Baserritarra y sidrera. Fue una mujer trabajadora: vendió sidra de las kupelas, realizó las tareas del caserío y del hogar y vendió hortalizas en el mercado de la Brecha. Posteriormente, comenzó a trabajar en la cocina del restaurante. Además, fue la primera mujer en obtener el permiso de conducción en Gipuzkoa.**

\*Maria Josefa Goikoetxearen biloba baten senarra den Jon Torreren ekarpenak.

\*Contribuciones de Jon Torre, el marido de una de las nietas de Maria Josefa Goikoetxea.

“

Bera zen  
emakume  
oso  
indartsua.  
oso langilea.



Maria Josefa Goikoetxea Iturralde, baina beno, beti baserrian eta inguruko jendearekin eta lagunekin Joxepa. Amona Joxepa. Jaio zen, hemen baserrian, Petritegin 1922an.

Baserrietan batez ere egiten zuten txikitatik lana. Pixka bat joango zen eskolara, baina hemen nola lana zegoen...

Hemen baserrian zegoen alde batetik, baratza, animaliak, sagardoa, sagarrondoak, beste fruta-arbolak. Gero, zelaia, artoa. Denetarik. Orduan, lan asko zegoen.

Garai horretan horrela zen. Auzolaneko gauzak. Sagarra biltzea joan behar bazen, sagasti batera joaten ziren ingurukoak eta gero, bestera... eta horrela. Baserrien artean laguntzen. Txikitatik ezagutu dugu gure izebarekin, ba pentsatu amonaren garaian. Geroz eta gehiago.

Beste baserritara laguntzera joatean elkartzen ziren hango gazteekin eta umeeekin. Hor egingo zituzten bere jolasak, bere gauzak... baina beno, hainbeste ez dakigu.

Gerra aurretik normalean kupela saltzen zuena emakumea zen. Amona sagardoa saltzen egoten zen. 22 urterekin eta pentsatzen dugu aurretik ere bai. Baina hori bere amak egingo zuen hasiera batean eta gero berak.

Egoten zen kupel ondoan. Bera eserita, mahai txiki bat, basoak hor eta txarroa. Eta edukitzen zuten balde bat urarekin basoak garbitzeko. Eta txanponak jasotzeko ere zerbait.

Batzuk janaria ekartzen zuten. Janaria ez zuenak ekartzen eskatu egiten zuen. Amonak egiten zuen tortila bat, bokadilo

txiki bat, kazuelak ere bai... Prestatzen zuen sukaldean eta gero jeitsi egiten zuen jendeak edaten jarraitzeko.

Baina aurretik sagardoa egiteko lana egiten zuten. Sagarra biltzen, sagarra jo behar zen tokira eramaten, eta gero kupelak betetzen ere bai. Lehen mangerak eta gutxi zeuden eta bonbak, orduan baldeka zerak (kupelak) betetzen ziren. Hori dago dokumentatua aspalditik emakumeen lana izaten zela. Orduan lan guzti horiek txikitatik egiten zituen.

Gero diktadorekin emakumea pixka bat geratzen da barneko lanetan. Jendearen aurrean paper hori gizonak hartzen du. Sagardotegiko aurpegia bera zen, aitona. Baina amona zen hemengoa eta bera zen aurrera atera zuena dena. Hemen bere baserria, bere sagardoa, baratza, azokara joaten zen... Negozia ez zen berea,

pentsatzen dut senarraren izenean egongo zelako, aitona izenean. Berez berea zena. Bere aita hil zenean bere amarekin dena aurrera atera zuena eta gero denboran beti egon da familia aurrera ateratzen, baserria, jatetxea, sagardotegia... Nahiz eta egon "en segundo plano", baina beti bera zegoen. Bera zen emakume oso indartsua, oso langilea. Orduan jendea gogoratu egiten da. Irudia aitona zen, baina gero hona etortzen zenak eta ezagutzen zuenak ikusten zuen bera zer nolakoa zen eta zenbat indar zuen. Azkenean ardatza bera zela.

María Josefa Goikoetxea Iturralde, pero bueno, siempre en el caserío y con la gente y los amigos Joxepa. La abuela Joxepa. Nació, aquí en el caserío, en Petritegi en 1922.

En los caseríos sobre todo trabajaban, desde pequeños. Iría un poco a la escuela, pero como aquí había trabajo...

Por un lado estaba el caserío, la huerta, los animales, la sidra, los manzanos, otros árboles frutales. Después, campos, maíz. De todo. Entonces, había mucho trabajo.

En esa época era así. Cosa de trabajo comunal. Si había que ir a recoger manzanas, la gente del entorno iba a un manzanal y luego al otro... y así. Ayudándose entre caseríos. Esto lo hemos conocido desde pequeños con la tía, pues imagina en la época de la abuela. Aún más.

Al ir a ayudar al otro baserri, se reunían con los jóvenes y los niños de la zona. Ahí harían sus juegos y sus cosas; pero bueno... tanto no sabemos.

Antes de la guerra, normalmente, la que vendía barril era la mujer. La abuela solía estar vendiendo sidra. A los 22 años y pensamos que incluso antes. Pero, eso lo haría su madre al principio y luego ella.

Se ponía junto al barril; ella sentada, una pequeña mesa, los vasos ahí y la jarra. Y tenían un cubo de agua para lavar los vasos. Y algo para recoger las monedas.

Algunos traían comida. El que no traía comida pedía. La abuela hacía una tortilla, un pequeño bocadillo, hasta las cazuelas... La preparaba en la cocina y luego la bajaba para que la gente siguiera bebiendo.

Pero antes, hacían el trabajo de hacer sidra. Recogiendo la manzana, la llevaban al sitio donde había que tocar la manzana, y luego llenando las kupelas también. Antes había pocas mangueras y bombas, entonces se llenaban los barriles con cubos. Eso está documentado desde hace tiempo que era labor de las mujeres. Entonces, todos estos trabajos ella los hacía desde la infancia.

Luego, con la dictadura, la mujer queda un poco en las tareas internas. Lo de estar ante la gente, ese papel lo coge el hombre. El rostro de la sidrería era él, el abuelo. Pero la abuela era la que era de aquí y era ella la que lo había sacado adelante. Aquí su caserío, su sidra, su huerta, iba al mercado...

El negocio no era suyo, supongo que estaría a nombre de su marido, del abuelo. Lo que en realidad era suyo. Ella era la que sacó todo adelante con su madre cuando

murió su padre y luego siempre ha estado sacando adelante a la familia, el caserío, el restaurante, la sidrería... Aunque estuviera en segundo plano, siempre estaba ella. Era una mujer muy fuerte, muy trabajadora. Entonces, la gente se acuerda. La imagen era el abuelo, pero luego el que venía aquí y la conocía, veía cómo era ella y su fuerza. Al final, el eje era ella.



**Ikus bideoa**  
**Ver vídeo**